

Aretxagazeta



Azoka ekologikoak eta artisauen feriak
hamar urte beteko dute aurten.
Tril taldekoak ere hamargarrenez
aterako dira taloak egitera.
Beinke-Loramendi dantza, berriz, ez da egingo!

SANMIGELAK04

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida


Ondo pasau San Migelak!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

atseden
CYBERCAFE



Araba ibilbidea 27 Aretxabaleta Tel.: 943 79 89 91

**IBARRA
JATETXEA**

Menua
eta
karta



Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 18 03

San Migel jatetxea



Apotzaga auzoa - Tel.: 943 71 48 71
Eskoriatza

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

**ZARAIA
taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

Mirrentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

**EZKUTU
TABERNA**

Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA, 943 79 20 67

TABERNA
ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

LAGUNAK
DASTALEKU
TEL. 943 71 40 63

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8. ESKORIATZA

**Aretz
taberna**



ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Lehen dantzan eta kantuen gehixau egiten zan?




MARIAN AGIRRE
irakasle



DEMESIO ARKAUX
erretiratue



SABINO BENGOA
erretiratue



JOAKIN LIZARRALDE
erretiratue



MARIATXEN URKIA
langillie



ANA MARI GAZTAÑAGA
etxeoandrie

Kantuen ez dakitx, baina dantzan askoz be gehixau. Auzo danetan erromerixak egoten zien: Larrinon, Arkarazon... Domeketan be dantzia egoten zan Herriko Plazan.

Koloreik be ez oinguez konparaute. Lehen, txikiteuen normala izeten zan kante tie. Domekie be noiz ailegauko izeten gitzen dantzan egiteko. Edurra edo eurixe, berdin zan.

Konparau be ezin da egin. Domekero bandie egoten zan, edo bestela kordiona. Kantuen be lehen afari danetan egiten zan, eta oin, barriz, inok be ez daki kantuen egiten.

Lehen jaixetan beste giro bat egoten zan, domeketan be dantza asko egiten geuen. Tabernetan, barriz, musikaik ez eta kantuetan asko egiten zan, batez be kantu euskaldunak.

Tabernetan lehen jende gehixauk egiten euen kantuen, batez be nagusixek. Denborak aldatu egiten die, eta oin tabernetan musikia egoten danez zailaua izeten da kante tie.

Kantuen behintzat askoz be gehixau. Andrak be egiten geuen, baina gizonek gehixau. Dantzan be domekero plazan, eta gero dantzie bukatutakuen, zinera faten gitzen.

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 27
FRAILE. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMKA, 28
FRAILE. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE
PARROKIA
Domeketan: 11:30
Zapatuetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:
AOZARATZA
Domeketan: 12:30

ARKARAZO
Domeketan: 11:30

GALARTZA/IZURIETA/GELLAO
Ez dago mezarik hile honetan.

OHARRAK

GRIPEAREN AURKAKO TXERTOIA

Hasi dira anbulatorioan gripearen aurkako txertoia ipintzen. Urriaren 29ra arte izango da aukera, eta interesatuek anbulatoriora deitu eta txertoia hartzeko ordua eskatu behar dute. Gainera, anbulatorioko arduradunak auzoetara ere joango dira.

UDAL EUSKALTEGIAN IZENEMATEA ZABALIK

Leintz euskaltegian izena emateko aukera zabalik dago hilaren 21 arte. Interesatuek 943 79 21 68 zenbakira deitu behar dute.

YOGA IKASTAROA

Sadhna zentroak yoga hastapen ikastaroa antolatatu du. Argibideetarako 616 96 57 95 zenbakira deitu.

IRUDIA



LARRIN DANTZA

Aurreko urteetan bezala, Larrin dantza dantzatuko da Arluzetik atera eta Durana kalean. Larrin dantza asko hedatu da Euskal Herrian azken urteetan, eta dantzari ezagunenetakoa bilakatu da. Aretxabaletan ere bitxia da Larrin dantzaren historia. Herriko dantzariak bazekiten dantzaten, baina 1994. urtean, Murruxiko taldeko partaide batzuk dantza hori ikasten hasi ziren. Ikasi, eta Iparraldera hasi ziren joaten, han jai askotan dantzaten baita. Geroago, herriko dantzariekin hitz egin, eta San Migeletan Larrin dantza egitea erabaki zen. Edonork parte har dezake dantza horretan.

OPEL

OPEL ASTRA berria

Geroan oin bat jartzea bezala dela diote.

Ondo pasau San Migelak!

GARAJE NORTE S.L.

Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA
Tel. 943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20



Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Maria Agirre

ERREDAKZIOA
Maria Agirre

MAKETAZIOA
Alex Azkarate
Imanol Soriano

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagakoko
Udala

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUA

Egubakoitza, 24

9:00 Buruhandiak Herriko Txistulariekin batera.

19:30 Oihulari Klown taldearekin kale animazioa *Otiacicoh* antzezlanarekin.

22:30 Aretxabaletako gazte ekimenak antolatuta Tranpatronic Circus Band, ska musika euskalduna Arlutzeko plazan.

Zapatua, 25

10:00 Artisau feria eta X. azoka ekologikoa. Loramendi elkartearen eskutik taloak jan eta sagardoa edateko aukera izango da Durana kalean.

10:30 Diana herriko txistulariekin.

17:00 Hala Gera gaitariak kalez kale.

11:30-13:30 Leizarra musika eskolako tritilariak.

12:30 Txalaparta Durana kalean.

13:00 Salda Durana kalean.

13:00 Mañukorta, Jokin Labayen eta Manex Agirre bertsolariak Durana kalean.

17:00 Hala Gera gaitariak kalez kale.

18:00 Goloka taldearekin umeentzako kale animazioa.

19:00 Tapia eta Leturiaren erromeria Arlutzeko kantxan. Jokin Otamendi dantzak irakasten arituko da.

20:30 Larrin Dantza Durana kalean. Arlutzeko kantxatik irtenda.

21:30-23:00 Tapia eta Leturia.

Domeka, 26

10:00 Gazteentzako Udazkeneko txirridulari criteriumaren hasiera Durana kalean. Bukaera Mendiola auzoan, 11:30ean.



TALOAK JAN ETA SAGARDOA EDATEKO AUKERA IZANGO DA GOIZEAN

13:00 Herri kirola: Perurena harria jasotzen. Fausto: ebaketa hirukoitza australiar erara, 5 metroko altueran. Ugaitz eta Aratz gazteak aizkoran.

16:00 Erlojuz kontrako txirridulari lasterketa.

16:30 Umeentzako parkea Herriko Plazan.

16:30-XII. San Migel Mus Txapelketa. Garaikurrak, txapelak eta dirua lehenengo sailkatuentzat. Izenematea: 18 euro.

18:00 Erlojuz kontrako txirridulari lasterketaren bukaera. Durana kalean helmuga.

19:30 Aretxabaletako Leizarra musika eskolaren, Loramendi dantza taldearen eta Aretxabaletako abesbatzaren emanaldia Iturrigorri frontoian. "Aretxabaletako betiko kantua" izeneko emanaldia eskainiko dute. Kantu herrikoiak izango dira nagusi. Zuzendaria: Angel Barandiaran. Txalapartariak ere izango dira.

Errekabarren merkataritza etxea.

Guztia bertan. Guztia Errekabarren kalean.

ONDO PASAU
DENOK!




MARI KARMEN
ZAPATA-KONPONKETA DENDA
943 79 59 85




IRUDI
ILE APAINDEGIA
943 79 80 90




LEINTZ-ROSI
MERTZERIA
943 79 78 63



ERREKABARREN
FRUTATEGIA
943 79 96 43




Yoga
Bioenergetika
Meditazioa



Giza psikoterapia
(interpersonal integratzailea eta gestalt-a)
Zinema eta mitologia tailerrak

Sadhana yoga eta psikoterapia zentroa
Santa Kurtz 24 Aretxabaleta Tel.: 616 96 57 95

Jai zoriontsuak!



EGUZZKIGRAF
inprimategia

Txapela buruen
eta zapixe lepuen
San Migel jaixek
sekuleko giruen.

ondo pasau
eta ahal dena gastau!!

Industrialdea F-O-4. Araba Ibilbidea. Aretxabaleta. Tfnoa. 943 791844. Faxe 943 792941. E-mail: info@eguzkigraf.com



Fino

Gizonezkoen ile apaindegia

Ondo pasau herriko jaixetan!

Durana 19 • Aretxabaleta • Tel.: 666 264 886



EGUBAKOITZA OIHULARI KLOWN TALDEAREN KALE ANIMAZIOA 'OTIACICOH' ANTZEZLANA ESKAINIKO DUTE

El Salvadorko indigenek zelan ikusten gaituzten azalduko digute

Oihulari Klown antzerki taldeak 'Otiacicoh' kale animazioa eskainiko du

MARIA AGIRRE

Gaur egubakoitza, 19:30ean, *Otiacicoh* antzezlana eskainiko du Oihulari Klown taldeak. Virginia Imaz zuzendariaren antzezlana emango die zer pentsatua aretxabaletarrei.

Nahuatlez, hau da, Azteken hizkuntzan, *iritsi gara* esan nahi du *otiachicoh* hitzak. Eta gaur herrira iritsiko direnak bost indigena izango dira, El Salvadorkoak. Nahuatlez berba batzuk esango badituzte ere, ez da zaila izango elkar ulertzea, keinuekin ulertzeko aukera ere izango baita. Euren aurpegi koloredunek liluratu egingo gaituzte.

1.500 URTEKOAK

Bost indigenok 1.500 urtekoak izango dira, eta XXI. mendeko Aretxabaletara etorriko dira. Nola ikusten gaituzten kontatuko digute: gure arropak zer iruditzen zaizkien, janaria gutuko ote duten, ibilgailuen kontua, harremanena... Mundua ikustera atera dira El Salvadortik, eta Aretxabaletan egingo dute etenalditxoa. Indigenak, baina, oso desberdinak izango dira aretxabaletarrentzat. Jantzeko hostoak erabiltzen dituzte.

Munduan kultura desberdinak daudela eta guztien arteko biziraupena garrantzitsua dela adierazi nahi du Virginia Imaz zuzendariak obra honekin. Gaztetxoei ez ezik helduei ere zuzenduta dago. Kale animazioa izanik, batean eta bestean ibiliko dira.



Bost indigena aurrera eta atzera ibiliko dira. Gure janzkeraz edo bizi izateko moduz zer uste duten esango digute.

OIHULARI KLOWN

Aurpegiko garbitasunak

- Orbanak
- Zimurrak
- Hidratazioa



Gorputzeko tratamenduak

- Erditze ostekoak
- Berrindartzaileak
- Erreduktoreak
- Antizelulitikoak



Zerbitzu guztiak
zu edertzeko

Laser depilazioa

- Axilak
- Iztaiak
- Aurpegia (Bibotea, patillak)
- Sorbalda



Makillaje ikastaroak

- Pertsonalak
- eta indibidualak



Gemes
estetika

Ondo pasa jaixetan!

Ilargi plaza 2 • Tel.: 943 79 99 18
ARETXABALETA

GORA SAN MIGELAKI!

Mota guztietako gidatzeko
baimenak ateratzeko aukera.
LARRINGANEK.

Ordutegia, zure beharretara
egokitua.
LARRINGANEK.

Testak egiteko CD bat etxera
eramateko aukera,
irakaslearen jarraipen osoarekin.
LARRINGANEK.


Berria!

Gogo pixka bat.
NORBERAK.



Basabe poligonoa F-0-7
Aretxabaleta

Garibai etorbidea 5
Arrasate



Aretz taberna



- .Gosariak
- .Pintxoak
- .Plater konbinatuak
- .Otartekoak
- .Pizzak
- .Hanburgesak
- .Sandwichak
- .Oilasko erreak
- .Kazuelatxoak

GORA SAN MIGELAK ETA ARETXABALETARROKI!

ORDUTEGIA:
Astelehenetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole 5, behea Tel.: 943 79 14 67 ARETXABALETA

ZAPATUA

10:00ETAN HASI ETA 14:00ARTE, ARTISAU FERIA ETA AZOKA EKOLOGIKOA IZANGO DIRA

X. azoka ekologikoa izango da aurtengo jaietakoa

Artisauak ere hamargarren aldiz etorriko dira San Migeletako azokan parte hartzera

MARIA AGIRRE

Duela hamar urte, artisau gutxi batzuk baino ez ziren San Migeletako azokan esku hartzera etorri. Azoka ekologikoa ere pauso txikiak emanez hasi zen. Hamar urte geroago, biak hala biak heldutasunera iritsi dira.

Artisauak urtean egindako lanak, eta baraziki ekoizleek, berriz, ortuan jasotako barazkirik ederrenak erakutsiko dituzte bihar. Urtero moduan, artisauak Herriko Plazan elkartuko dira, eta Durana kaleak azoka ekologikoa jasoko du. Gainera, Biolurrun eskutik, pintxo ekologikoak jateko aukera izango da, eta neka-



Almenekoeek mermeladak egin dituzte, eta Kurtzebarriek euren baratzeko barazkiak salduko dituzte.



ALMEN ETA KURTZEBARRI

zaritza ekologikoaren gaineko informazioa emango dute.

Artisauak dagokienez, era guztietako 24 artisau izango dira. Hasi zapatagileetatik, otaragileetaraino.

IKASLEAK ERE AZOKAN

Kurtzebarri Herri Eskolako eta Arizmendiko Almen guneko ikasleek ere parte hartuko dute azokan. Kurtzebarrikoek ortu ekologikoan landutako bazkariak

eramango dituzte, eta Almenekoeek, berriz, fruitu lehorrak eta eurek egindako mermelada eta lurrinak jarriko dituzte salgai. Almenekoeek Hiruatx elkartera zuzenduko dute azokan jaso-

tako dirua. Kurtzebarrikoek, berriz, landara gehiago erosteko erabiliko dute. Ikasleek euren gurasoak eta irakasleak izango dituzte lagun. Baserritar jantzita aterako dira.




Ondo ibili
San Migeletan!

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19

Aretxabaleta
okindegia



H A I Z E A



KAFETEGIA ETA
TABERNA

“San Migeletan egiguzu bisita”

Mitarte z/g • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 60



Ile apaindegi mistoa

*“Maite eta Sandrak San Migel
jai zoriontsuak opa dizkizute!”*

Herriko plaza 5 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 83 64

ELKARRIZKETA ANGEL BARANDIARAN 'ATXABALTAKO BETIKO KANTUAK' EMANALDIA DOMEKAN

“Lehen gehiago kantatzen zen kalean eta tabernetan”

M.A

Domeka iluntzean kantuz beteko da Iturrigorri frontoia. *Atxabaltako betiko kantuak* izenburupean kontzertua eskainiko dute Aretxabale-tako abesbatzak eta Leizarra musika eskolak. Dantzariak ere izango dituzte minutu batzuk.

Aurten, Aretxabale-tako betiko abestiak.

Bai, herrian ezagunak diren kantuen zerrenda bat egin dugu, eta hortik hainbat aukeratu ditugu. Guztiak oso ezagunak dira, eta uste dut jendea asko gustatuko zaiola emanaldia.

Zerrendan zein kantu daude?

Batzuk aipatzekotan honako hauek: *ixil ixilik dago*, *Maritxu nora zoaz*, *Ikusi mendizaleak*, *Maitia nun zira* eta jakina, *Alaitu UDA txapeldun* ere bai.

Aukeraketa zeinek egin du?

Nik zerrenda egin, eta ondoren, abesbatzako kideen artean aukeraketa egin genuen. Kantu asko geratu dira zerrendatik kanpo,

rantxerak eta Habanarak, esaterako. Hurrengo batean izango da horien txanda.

Herritarrek parte har dezakete?

Helburua hori da. Kantu batzuk aretxabaletarrek ere kantatuko dituzte abesbatzak lagunduta. Horretarako, jai egitarauan kantu batzuen hitzak agertuko dira.

Zenbat lagunek esku hartuko duzue emanaldian?

Nagusien abesbatzan 28 lagun eta gaztetxoenean 40 izango dira. Horretaz gain, dantzariak, txistulariak eta txalapartariak. Pianoan Jose Luis Franzesena arituko da, eta perkusioan Iker Telleria.

Gazteen abesbatzan 40 lagun. Asko, ezta?

Bai, baina guztiak neskak. Mutikoak hasten dira, baina gero futbola dela eta ez dakit zer dela... Gainera, hainbeste neskatilaren artean arraro sentitzen dira.

Angel, lehen gehiago kantatzen zen kalean?

Aspaldi izugarritzko zaletasuna zegoen; gaur egun, berriz, galtzen doa. Lehen tabernetan, elkarreetan kantatzen genuen.

“Ezagunak diren kantuak abestuko digutu”

“Kantu batzuk herritarrek kantatuko dituzte”

“Nire ustez jendearen gustukoa izango da”

Pena da, orain galtzen ari baita. Tabernetan orain musika ekipo oso onak daude, eta ez dago kantatu beharrik ere. Ohiturak aldatuz doaz, baina pena ematen dit herriko melodiak galduz doazela jakiteak. Gazteek ere nahiago dute Bisbal edo ez dakit zer entzun.

Arrakasta izango du domekako emanaldiak?

Nik uste dut jendeak oso ondo pasatuko duela. Ordu eta erdi iraungo du emanaldiak.



Angel Barandiaran abesbatzako zuzendaria da.

Eta asmo gehiago ere ba ei duzue aurrera begira.

Datorren urtea garrantzitsua izango da. Abesbatzak 25 urte beteko dituzenez,

zarzuela bat prestatuko dugu. Baina ideia gehiago baditugu, esaterako, Benito Lertxundiren kantu batzuekin emanaldia osatzea. Eta hori gutxi balitz,

parrokiako organoak mendea beteko du, 100 urte. Hori ere ospatu behar dugula eta, hor ari gara lanean. Organoren historia jasoko duen liburua egin nahi dugu.


Bereziki: Harategia Urdaitegia Fruitategia

Ondo pasa
jaixak!

IMANOL JANARI DENDA

Gorbea kalea 8. ARETXABALETA. 943 79 05 83

Jai zoriontsuak igaro!



- BILTEGI-HOZKAILUA
- OKELA-PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK



"Aretxabaletako Udalak San Migel jai zoriontsuak
opa dizkizue aretxabaletar guztioi."



ARETXABALETAKO UDALA



ELKARRIZKETA JOSEBA TAPIA

TAPIA ETA LETURIA TALDEKO KIDEA

“Kexu naiz ez ote diguten aisialdia multinazionalek antolatzen”

M. A.

Zapatu iluntzean erromeria izango da Arlutzeko atzealdean. Tapia eta Leturia trikitilariak etorriko dira erromeria alaitzera, eta Jokin Otamendi animatzaileria ere izango da eurekin. Azken horren lana izango da jende-ari dantzak erakustea.

Erromeriak eskaintzen ari zarete han eta hemen.

Bai, badira urte batzuk udan erromeriak edo dantzaldiak eskaintzen ditugula jendea dantzan jarzeko asmoarekin.

Gaur egun ez da erraza jendea dantzan jarzea, ezta?

Bai, gaur egun dibertimendua beste era batera bizi dugu. Garai bakoitzak bere modak ditu, baina ni kexu naiz ez ote diguten

multinazionalek aisialdia antolatzen. Dantza uste dut dibertimendurako modu egokia dela, jendeak ondo pasatzen du.


Dantza egiteko gogorik ez dugula ematen du.

Gogoia izan behar du jendeak, bestela alferrik da. Nire ustez hori gertatzen da gaur egun jaiak enpresa edo zinegotzi batek antolatzen dituelako. Era horretan, plazak hutsik ikusten dira. Festak antolatzen dira, antolatu egin behar direlako.

Jokin Otamendi dantzaria ere zuekin izango da erromeria alaitzen.

Bai, hark dantzak erakutsiko dizkio jendeari. Dantza errazak izango dira, eta ez oso luzeak. Frantzia eta Italian, esate baterako, dantzak azaltzeko ohitura handia dago. Hego Euskal Herrian, berriz, askoz ere txikiagoa, hemen berria da.

Jendea baserritar jantzita egoteak laguntzen



duela uste duzu?

Urte askoan baserri giroko herrietan jotzen izan

gara, eta triste bizi izan dugu baserriaren gainbetera. Horregatik iruditzen

“Dantza dibertimendura ko modu egokia da”

“Folklorikoa da jendea baserritar janztea”

“Trikitilari talde asko pikutara joan da azkenaldian”

zait folklorikoa dela jendea baserritar janztea; azken baten, baserri giroa desagertu egin da.

Zelan joan da uda? Herri dezente pasa ditugu, baina kontua da ez dugu-

la promotoreekin lanik eginen. Horregatik, Bizkaian lan gutxiago egin dugu.

Herri txikietan zelan ikusten zaituztete, eta hirietan?

Hirietan talde folkloriko bat bezala, eta txikietan, Laja eta antzeko trikitilarien pare.

Gogorra behar du izan: plazan jotzen izan eta jenderik ez entzun edo dantzatzen.

Plazak hutsik ikusiz gero, lan hori utzi egin behar da. Eta hala gertatu da azkenaldian. Trikitilari talde asko pikutara joan da. Gaur egun bizi irauteko telebistan agertu behar duzu, bestela jai duzu. ETBn ere programak show hutsak dira, ez dute trikitilari bat eramaten elkarrizketa bat egiteko, eta horrek asko eragiten du. Erromerien kontu honekin pozik ari gara, baina ikusi egin behar noiz arte.

Jar zaitez profesional
espezializatuen esku.

Zure osasuna gure ardura da.

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE
ZENTRUA

 **ekin**
fisioterapia zentrua



ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERRAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru
etxeekin lan egiten dugu:
(Lagun Aro, Adeslas, Mapfre,
etab.)

Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Telf.: 943 79 95 64 • Gipuzkoa

LORAMENDI

DUELA HAMAR URTE HASI ZIREN TRIL TALDEKO EMAKUMEAK SAN MIGELETAN TALOAK EGITEN

Tril-ekoek gertu dute arto irina taloak egiteko

Loramendik, bestalde, bazkide berriak lortzeko kanpaina egingo du bihar goizean

M.A.

Bihar goizean, txosna jarriko dute Tril taldeko lagunek Durana kalean. Guztira 60 lagun ibiliko dira taloak egiten, gehienak emakumezkoak. Gainera, aurrez txartelak erosteko aukera izango da. Orendainen 50 kilo arto irin erosi dutenez, nahikoa talo egin eta sal-

duko dute. Urtez urte esperientzia hartu dutenez, bizkor ibiliko dira taloginean.

HAMAR URTE TALOAK EGITEN

1994an hasi ziren Tril-ekoak talo txosna jartzen, beraz, aurten hamargarren aldia dute. Urtemuga seinalatu honetan, Loramendiko bazkideek txosnan edari bi dohainik izango dute.



Loramendiko bazkideek izaten dituzten onurak

Bihar jendetza espero da Aretxabaletan. Hori aprobetxatuz, Loramendiko kideek mahai bat jarriko dute txosna kanpoan. Bazkide berriak lortzea izango da helburua. Horretarako, Loramendiko bazkide izateak zein onura dituen jakinaraziko dute. *Asteleheneko Goienkaria*-n eta Ludotekan beherapenak dituzte bazkideek, besteak beste. Gainera, aurrerantzean, herriko jatetxeetan bazkariak zozketan emango ditu Loramendik. Hiru hilabeteen behin egingo da zozketa. Bihar egingo da lehenengoa, eta Matikuan lagun birendako bazkaria izango da jokoan.



Mañukorta, Jokin Labaien eta Manex Agirre bertsotan

Durana kalean bertsoak entzuteko aukera izango da bihar, 13:00etatik aurrera. Hiru lagun arituko dira bertsotan: Mañukorta, Jokin Labaien eta Manex Agirre. Nobedaderik ere izango da, aurten, gai-jartzailea izango baitute. Irati Pagoaga arduratuko da lan horrekin. Bertso saio bitxia izango da, gazte bi eta nagusi bat arituko baitira. Manex aramaioarra eta Jokin arrasatearra gazteak dira; Mañukorta, markina-rra, berriz, nagusiagoa da. Hiru bertsolariak gai-jartzailearen aginduak jarraitu, eta jendetzaren arreta bereganatzen saiatuko dira.

KTIBOS



ZAPATA DEMDA

SAN MIGEL
ZORIONTSUAK IGARO!

Murubide 2 behea • Aretxabaleta
Tel.: 943 53 37 33



Ondo ibili
San Migeletan!

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

KiXKur

ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala

Ile-luzatzeak

Estetika zerbitzuak:

manikura,

pedikura,

aurpegiko azala garbitzea....

Gozatu San Migelak!

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETA



KIROLA

TXIRRINDULARI LASTERKETAK NAGUSI IZANGO DIRA DOMEKA GOIZ ETA ARRATSALDEAN

Txirrindulari lasterketa eta herri kirolak aukeran domekan

Gazteendako udazkeneko bosgarren txirrindulari criteriuma korrituko da domekan

M.A

Txirrindulari-zaleentzat proba bi izango dira domekan. Goizeko ibilbideak 56 km izango ditu, eta arratsaldean, bira bi eman beharko diote txirrindulariek erdialdean hasi eta bukatuko den zirkuituari.

Aretxabaletako criteriumak badu berezitasun bat. Kontua da Gipuzkoako Txirrindulari Federazioak gazteentzat antolatu duen azkena dela. Denboraldiaren bukaeran, beraz, sasoi betean izango dira txirrindulariak.

GOIZEKO PROBA

Domekan 10:00etan hasiko da lehenengo proba. Herri-kirol abiatu, Arrasatera joan, ondoren Leintz Gatzaga zaharreko errepidea igo eta Mendiola auzoan bukatuko da. Guztira 56 km ditu ibilbideak, eta 11:30ean bukatuko dela uste dute. Domekako proba horretan eta aurreko egunean korritu-


takoan ondoen sailkatzen diren 25 txirrindulariek arratsaldeko erlojuz kontrako proban parte hartzeko aukera izango dute.

ARRATSALDEKOA

16:00etan hasiko da arratsaldeko erlojuz kontrako proba. Aretxabaletatik Mugarri-eta, eta saihesbideteik Almeneko bidegurutzera joango dira txirrindulariak berriro ere herriaren erdialdean bukatzeko.

HERRI KIROLAK

Herri kirolak ere ezin hutsik egin San Migeletan. Herriko plazan, 13:00etatik aurrera erakustaldia izango da. Perurena harria jasotzen arituko da, eta Fausto aizkolariak ebaketa hirukoitzara egingo du australiar erara. Bost metroko altueran egingo du lan aizkolariak. Baina gazte bi aizkoran ikusteko aukera ere izango da, Ugaitz eta Aratz. Arratsaldean, bestalde, mus txapelketa jokatu da. Izenematea 15:15etik 15:45era egin behar da, 18 euro ordainduz. Irabazleentzat sariak izango dira.



Txirrindulariak goiz eta arratsaldean ikusiko ditugu. Herri kirolen erakustaldia, berriz, eguerditik aurrera izango da.

ARTXIBOA

Ondo pasa
jaietan!

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea 1 Loramendi 1
Tel.: 943 77 13 79 Tel.: 943 79 18 33
Aretxabaleta



ZORIONAK DENOI!

INDUSTRI HORNIDURAK

MEMESA

Tel.: 943 71 24 25 / Faxe: 943 71 22 98
ARETXABALETAKO - ARRASATE - OÑATI



FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK

orain saltoki berrian,
Eskoriatzan!!



*hurbila eta
profesionala*



Torrebaso Pasealekua, 16 • 20540 Eskoriatza
Tel. 943 71 30 30 • Fax 943 71 25 55 • urkulu@cadena88.com
www.urkulu.com



*San Migeletan dozu
dantza ta juergie
harik ta hobetuen pasau ta
ebali euskerie!*

loramendi
euskera elkarte

MUSIKA

ZAPATUAN HALA GERA GAITARIAK KALEZ KALE

Bilboko gaitariak, San Migeletako ohitura

Urtero etortzen dira Bilboko gaitariak. Ibon Koteron partaideetariko bat da.

M.A.

Egitarauan Hala Gera izeneko gaitarien emanaldia iragartzen bada ere, Bilboko gaitariak dira. Kontua da, azken urteetan Hala Gera izena erabili dutela, baina orain, sorrerako izena berreskuratzea erabaki dute.

Ibon Koteron da Bilboko gaitariak taldeko partaideetariko bat, eta seguruen bera ere Aretxabaletan izango da bihar. Guztira bederatz lagunek osatzen dute taldea, baina taldetan banatzen dira herriz herri joateko. Gurea hiru kide etorriko dira, bik gaita joko dute eta hirugarrenak danborra. Azkenaldian urtero etortzen dira




Kalea girotzea eta Larrin dantza musika jotzea izango da Bilboko gaitarien lana.

BILBOKO GAITARIAK

herriko San Migeletara, eta kalea girotzeaz gain, Larrin dantzan musika jotzea ere euren lana izaten da. Taldeko partaide Monikek esan digunez, aretxabaletarrek gustuko dute gaita soinua.

Hala ere, aitortzen du gaitaren soinua ez dela guztien gustukoa. Bilboko gaitariak ezagunak dira, *Bada-tor Marijaia* kantuaren grabazioan parte hartu zutelako, besteak beste.

Urtero etortzen dira herriko San Migeletara, eta kalea girotzeaz gain, Larrin dantzan musika jotzea ere euren lana izango da



Zenbaki

AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea

- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es
webgunea: www.zenbaki.es

ERRETRATUZHARRA

Elkarte biren
bategitetik
sortutako dantza

Aurten ez dute Beinke-Loramendi dantza egingo San Migel jaietan. Aurtengoak hamargarren aldia behar zuen izan, baina azken urteetan jendearen parte-hartzea txikia izan dela ikusita, Loramendik ez du dantza horretarako deialdirik egin.

Beinke eta Loramendi elkarteek bat egin zutela irudikatzeko sortu zen aipatutako dantza 1994an. Musika Jose Ramon Bitoria arrasatearrak egin zuen eta dantza, berriz, Aretxabaletako dantza taldeak. Kantuarekin arduratu ziren Jon Sarasua, Aitor Sarasua eta Jon Iñaki Izarzelai. Loramendi ikastola sare publikora pasa zen 1993an, eta ordura arte ikastolako bazkide izandakoak ez galtzeko, Loramendi proiektua mamitu zen. Era horretan, ordura arte Beinke izena zuen euskara elkarteak Loramendi izena hartu zuen. Izenaz gain, ikastolako bazkide izandako hainbat lagunek euskara elkarteko bazkide izaten jarraitzea erabaki zuten.

1994ko urtarrilean aurkeztu zuten



Loramendi Kultur Elkartea, eta argazkian ditugu Batzorde Eragileko kideak. Ezkerretik eskumara: Jose Mari Sarasua, Patxi Lazkano, Maia Etxebarria, Carmele Igartua, Juanjo Arabaolaza, Alberto Trojaola, Jon Iñaki Izarzelai, Mila Zubizarreta, Jon Antxia, Jasone Gorroño eta Julen Zuazabeitia. Urtarrilean aurkeztu, eta

irailean, San Migeletan dantzatu zuten lehenengo aldiz Beinke-Loramendi dantza. Hasieran bi taldetan banatuta hasten da dantza, baina aurrera egin ahala, une batean elkartu eta borobilean bukatzen da dantza. Derrigorrezkoa da laurogei bat lagunek esku hartzea, bestela ezinezkoa baita dantza behar bezala egitea. Iaz nahiko jende azaldu

bazen ere, mutilen parte-hartzea oso txikia izan zen. Duela urte bi, baina, berrogei lagun baino ez ziren animatu. Ea jendea animatu, eta datorren urtean berriro ere dantzatzeko den Beinke-Loramendi dantza.

Argazkia: Aretxagazeta

- Erakusketak
- Antzerki, zine eta musika-zikloak
- Liburuaren argitalpena
- Kanpaina desberdinen eragiketa
- Erakusketa eta ikus-entzunezko materialen alokairua

KULTURGAIAK

HURBIL

KULTURA ZERBITZUAK

HURBIL KULTURGAIK, S.L.

Arkarazo auzoa • Bikarixuena baserria • p.k. 160

20550 ARETXABALETA

tel.: 943.71.42.08 • faxa: 943.71.47.08

e-posta: hurbil@hurbilkulturgaiak.com



**BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU
UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU**

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETA

Ondo ibili San Migeletan!

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa




**AZKARATE
AROSZTEGIA**

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko irailaren 24a / 179. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Intxaurtxuetako etxebizitza sozialak datorren urterako amaitzea espero dute

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Intxaurtxuetan errenta sozialeko 16 etxebizitza ari dira egiten. Lan horiek nola dauden ikustera etorri zen astelehenean Javier Madrazo. 2003ko abenduan hasi zituzten lanak eta datorren urteko abenduan amaitzea espero dute.

Astelehenean, irailak 20, Intxaurtxueta auzoan egiten dabilzan babes ofizialeko etxeetako lanak ikustera etorri zen Javier Madrazo sailburua.

Ekainean zozketatu zituzten etxebizitzak. Guztira 16 etxe egin ziren arren, 13 banatu ziren orduan. Eskoriatza, Gatzaga eta Aramaioko biztanleek hartu zuten parte zozketan.

ERRENTA SOZIALEKO ETXEAK

Errenta soziala ordaindu behar-ko dute etxea alokatzen dutenek; edonola ere, prezioak ez du euren diru-sarreraren %30 gaintu behar. Bai etxebizitza arruntak eta baita babes ofizialekoak erosteko ere, diruz txarren dabilzanez zuzenduta daudela eman du aditzera Etxebizitza eta Gizarte

Gaietako sailburuak. "Eusko Jaurjaritzaren eta Udalaren arteko lankidetzaren ondorio dira errenta sozialeko etxe hauek". Bi zati izan ditu proiektuak: lehenengoa 1998.urtean amaitu zen, 16 etxe ziren, baina erosteko eskubidea ematen zitzaien orduan zozketan parte hartu zutenei.

Hogeita bat lagunek eman zuten ekaineko zozketarako ize-

na. Lanak ondo joanez gero, 2005eko abendurako amaitzea espero dutela eman zuten aditzera asteleheneko ekitaldian.

BIZIGUNE PROGRAMA

Bestalde, Bizigune programari buruz egin zuen berba sailburuak, eta Udalak herrian hutsik dauden etxeen eta programan parte hartu gura dutenen errola egin duela goraiatu zuen. "Ez da derrigor eraikitzen jarraitu behar", hutsik dauden etxeei erabilera emateko aukera premiazkoa dela ikusten du Udalak.

Juan Carlos Bengoa Eskoriatzako alkateak laguntza eskatu zion Javier Madrazori. Izan ere, etxebizitza sozialen inguruan gertatzen diren iruzurrak zaintzea eskatu zion alkateak sailburuari. Eta hark erantzun zuen azpijokoen kontra buru-belarri dabilzala, mota horretako etxeek gainpreziorik izan ez dezaten, esate baterako. Eusko Jaurjaritzaren eta Eskoriatzaren arteko lankidetzarekin jarraitzeko konpromisoa hartu zuten bi aldeetako ordezkariak. Hala, gaur egun dagoen etxebizitzaren arazoari aurre egiteko asmoa azaldu zuten.

Etxe bat erosteko zailtasuna dutenei aukera eman gura diete errenta sozialaren bidez

Hutsik dauden etxeak berreskuratzea funtsezkoa ikusten du Udalak



Sonia Samaniego Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaria Madrazorekin batera.



Autobidearen lehenengo harria jarri dute

Irailaren 16an, Eskoriatzatik igaroko den AP-1 autobidearen lehen harria jarri zuten. Besteak beste, Ramon Rabanera eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarri egon ziren bertan. Baina ezin ahaztu autobideak kaltetutako elkarteak ordezkariak ere. Ekitaldian, bi ahaldun nagusiek hitza hartu zuten eta kaltetutakoak ez ziren oso konforme geratu, esaterako, alegazioei buruz ezer esan ez zutelako. Oraindik negoziatzen dihardutela gogoratu dute. /Z.V.M.

LABUR

Martitzenean jasoko dute landaguneetako plastikoa

Plastiko bilketa egingo dute oraingo hilean ere. Hala, base-ri inguruetan sortutako plastikoa jasoko dute. Hilaren 28an, martitzena, izango da hondakinak ateratzeko eguna. Orain arte bezala, Zarimuzko bidegurutzean utzi behar-ko dira plastikozko zatiak. Siloa estaltzeko, belar bolak egiteko, negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza jasoko dute; baita negutegiko plastikozko zuria ere. Plastikozko sokarik ez dutela bilduko adierazi dute arduradunek.

GRIPLEAREN KONTRAKO TXERTOIA

Eskoriatzarrak hasi dira gripearari aurre egiteko neurriak hartzen

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Arizmendi ikastola-Jose Arana.....	943 77 20 25
Arizmendi ikastola-Almen.....	943 77 20 25
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 54 34
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetzak.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

IRAILEKO AZKEN IKASTAROA

Irailaren 27tik urriaren 1era Kzguneko Nagusiweb ikastaroko eskolak emango dituzte. Asteko egun guztietan, 09:00etatik 11:00etara.

PATINAJE IKASTAROA

Helduentzako patinaje ikastaroko bigarren eskola emango dute domekan, hilak 26a. 10:30tik 12:00etara hastapen mailako txanda izango da; eta sakontze mailako txanda, berriaz, 12:00etatik 13:30era.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL


Gripearren kontrako txertatze kanpainak gaixotasuna prebenitzea du helburu. Astelehenean hasi zen eta urriaren 31n bukatuko da. Batez ere 65 urte baino gehiagoko lagunei zuzenduta dagoen arren, diabetiko eta gaixo kronikoei ere gomendatu diete hartzea.

Udazkenarekin batera, gripea hartzeko aukerak handitu egiten dira. Horren ondorioz, sukarra, ezutula, kongestioa, eztarriko minak... izaten dira. Hori ekiditeko, abian da, urtero bezala, gripearren kontrako txertatze kanpaina.

65 URTEZ GORAKOAK

Gripeak jende asko eta asko gaitzen du urtero. Egoera ikusita, prebentzioa da gripearari aurre egiteko modurik onena, eta horretarako, txertoa baino gauza eraginkorragorik ez dago. Astelehenean jarri zuten abian kanpaina, eta, batez ere, 65 urtez gorako herritarrentzat da. Izan ere, zahartzaroan kutsatzeko aukera handia egoten da, gorpuzaren defentsak ez baitira gaztaroan bezala egoten. Hala, 65 urtetik gorakoek nahikoa dute nortasun agiria edo banakako osasun txartela eraman.

Bestalde, diabetiko eta gaixo kronikoei zuzendutako kanpaina



Ez da bakarrik jende nagusientzako kanpaina; defentsaz pattal daudenei ere zuzenduta dago.

ere izan gura du. Azken batean, defentsekin makal egoten dira osasun egoera horretan daudenak. Horiek familiako medikua-

rengana joan beharko dute txertoa hartzera. Bertan beharrezko txartela hartu eta, hala, txertoa hartzeko aukera izango dute.

Bestalde, adituen esanetan, txertoa hartzeaz gain, elikadura orekatua izateak ere asko laguntzen du gripea saihesten.

LAGUNAK
DASTALEKU

Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

bedardenda

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA

TOKI ALAI TABERNA

Karajiloetan espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

Txalaparta taberna

Aranburuzabala 25
ESKORIATZA

BEIRALAN

KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

Villar
Ile apaindegia

Olazar auzoa 9
Tel.: 943 71 50 42
ESKORIATZA

AZKOAGA
ESTANKOA

943 71 48 77
Zure Zerbitzura

Giro bikaina nagusi zapatuan Gatzagan ospatutako Erretiratuen Egunean

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Narciso Beitia eta Satur Berrostegetak jaso dute aurten ere Erretiratuen Eguneko omenaldia. Zapatuan egin zuten ospakizuna, eta ekitaldira joandako 29 lagunek primeran ibili direla eman dute aditzera. Bazkalostean, guztientzako opariak banatu zituzten.

Festak amaitu ziren arren, ospakizunekin jarraitzen dute gatzagarrek. Iragan zapatuan, irailak 18, Erretiratuen Eguna ospatu zuten Gatzagan. Aurten ere ez dute hutsik egin, eta omenalditxo egin diete herriko nagusienei. Bazkaria egiteko ohitura dute Gatzagan, eta primeran pasa zutela adierazi digute eguneko protagonista guztiek.

Urtero egiten dute ekimena. Aurten ere, mahaiaren inguruan eseri aurretik, txikiteoa egin zuten herriko nagusiek. Zerbait edan eta Toki-Eder elkartera joan ziren, Gatzagain jatetxeak egindako bazkariak gozatzera.

"Oso ondo bazkaldu dugu", eman dute aditzera otorduan elkartutako 29 parte-hartzaileek. Guztiek jaso zuten opariren bat edo beste; arkatx eta boligrafo kutxatila bana eman zieten.

Bestalde, zozketa bidez oparia jaso zuenik ere egon zen; bi bas-



Bapo bazkaldu ondoren, opariak banatu zituzten parte-hartzaile guztientzat.

ASTELEHENKO GOIENKARIA

toi eta liburu sortak banatu zituzten. Azkenik, urteroko ohiturari jarraituz, parte-hartzaile zaha-

rrenek omenaldia jaso zuten zapatuan. Iaz bezala, aurten ere Satur Berrostegeta eta Narciso Beitia

izan dira omenduak. Saturri lore sorta eta lepo-zapia eman zizkionten opari; bastoi eta diru-zorroa,

berriz, Narcisori. Ziur probetxua aterako dietela jasotako erregaluei! Zorionak, guztioi!

Dorletako Santutegiko ateak maiatzera arte itxiko dituzte hilabete barru

Z.V.M.

Santutegia maiatzetik urri amaierara zabalik egoten da. Neguko hilabeteetan, berriz, herriko elizan egin ohi dute elizkizuna. Hilabete inguru geratzen da ateak itxeko; baina neguan ere, bisitaren bat edo beste jasoko du Santutegiak.

Dorletako Santutegiko ateak itxeko hilabete geratzen da gutxi gora-

behera. Izan ere, urriko azken domekan ateak itxiko ditu datarren urteko maiatzera arte.

Jendea, batez ere, eliza zabalik dagoenean, ezkontzera joaten da Santutegira. Tere Aranburuzabala elizako kontuez arduratzen den gatzagarra da, eta jakinarazi duenez, "itxita egoten den garaian ere jende ugari etortzen da. Ezkontzaren bat edo beste egiten da neguan, eta Turismo Bulegora herria ezagutzeko

asmoz gerturatsen diren bisitariari, atea irekitzen zaie, esaterako". Baina hala ere, ez da udaberri eta udako bisitari kopurua gaintzen.

Azarotik maiatzera bitartean, beraz, ez da mezarik esango Dorletan. Horren ordez, herriko elizan bilduko dira. Hala ere, oraindik Santutegira meza entzuztera, ezkontzera edo tokia ezagutzera joan gura dutenek ateak irekita aurkituko dituzte.



Jende asko gerturatu ohi da Santutegira; ezkontzeko erakargarria da tokia.

ARTXIBOA

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67



KURTZEBARRI BHI

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua

Laster ate irekien jardunaldia

Herriko plaza 1
Tel./Faxa: 943 79 57 40
012945aa@hezkuntza.net

**ONDO PASA
SAN MIGELAK!**



Basabe poligonoa B0, B1, B2
Aretxabaleta
35 posta-kutxa
Tel.: 943 79 88 64
Faxa: 943 79 19 30
rubberlan@euskalnet.net



Ondo pasa San Migeletan!



Zorionak Aretxabaletar guztioi!

Altzariak

Diseinua

Apainketa

Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07